MUSIKA SORKUNTZARAKO PIZGARRIAK: **ENKARGUZKO OBRA SINFONIKOAK**

20**26**

fundación sgae fundazioa AEOS

ARAU OROKORRAK

SGAE Fundazioak eta **Orkestra Sinfonikoen Espainiako Elkarteak** (AEOS), aurrez erakunde biek sinatutako hitzarmenaren bidez, **pizgarrien sistema bat ezarri dute enkarguzko obra sinfonikoak sortzeko**, SGAEko bazkide diren egileen sormena sustatu eta bultzatze aldera. Ekimen honek gaur egungo Espainiako errepertorio sinfonikoa gehitzeko asmoz Espainiako orkestrek egindako enkarguak osatzen ditu.

Pizgarri horiek esleitzeko orduan, honako arau hauek hartuko dira kontuan:

I BALDINTZAK

Egileari dagokionez
Enkarguzko obra egiteko hautagaia SGAEko bazkidea izan beharko da eta AEOSeko kide diren orkestretako batek proposatu beharko du. Era berean, enkarguzko obra-proposamenak onartuko zaizkie pizgarria eskatzeko orduan SGAE FUNDAZIOAn alta izapidetzen ari direnei. Dena den, pizgarria esleitzen bazaio, SGAEko alta osatuta eduki beharko dute hura jasotzekotan.

Ezin izango dira proposatu SGAEren Zuzendaritza Batzordean eta Ikuskaritza Batzordean diren kideak ezta SGAE Fundazioaren Patronatuko kideak ere.

Orkestrari dagokionez
Orkestra bakoitzak 2 proposamen aurkeztu ahalko ditu gehienez deialdi honetan. Proposamen horiek aurkeztu ondoren, orkestrak ezin izango ditu aldatu enkargua egiteko proposatu dituen egileak. Ez da onartuko orkestra batek baino gehiagok batera egindako obren enkarguak aurkeztea. Enkargua orkestra bakar batek egin behar du.

II ENKARGUZKO PROPOSAMENAK MUGATZEA

Enkarguzko obra sortzeko aukeratutako egileek ezin izango dute proposatuak izan pizgarri hauen hurrengo HIRU deialdietan, arau hauen esparruan hitzartutakoa betez. Ezin izango da proposatu ekimen honen aurreko hiru deialdietan enkarguzko obra sortzeko pizgarria jaso duen egilerik, eta/edo aurreko deialdiren batean entregatzeko epea bete ez duen egilerik.

Ez da onartuko aurreko deialdietan hautatuak izan arren, enkarguz sortutako obra sinfonikoa oinarri hauetan eskatutako epearen barruan estreinatu ez duten orkestren proposamenik. Zigor horrek deialdi baten iraupena izango du, eta, ondoren, orkestrak proposamenak aurkeztu ahal izango ditu berriro.

III PROPOSAMENAK EGITEA

1. AEOSen ardura izango da kide diren orkestrek egindako proposamenak biltzea, guztiak batera SGAE Fundazioari helarazteko.

2. **2026ko otsailaren 3tik 17ra**, AEOSek zerrenda entregatu beharko dio SGAE Fundazioari proposatutako musikagileen izenekin. Musikagilea proposatzen duen orkestrak hautagaitza bakoitza arrazoitu egin beharko du labur-labur, eta proposatzen duen musikagilearen laburpen biografikoa, aurreikusitako joaldi-kopurua eta informazioa eman dezakeen edo pizgarriak banatzeko esleitutako ebaluazio batzordearen irizpideak aberastu ditzakeen beste edozein agirirekin batera aurkeztu beharko du. Ezin izango dira proposatu 2023an, 2024an eta 2025ean enkarguzko obra sortzeko pizgarria jaso duten egileak.

IV EBALUAZIO BATZORDEAREN ERAKETA, XEDEA ETA ESKUMENAK

1. **Enkarguzko Obren Sorkuntzarako Pizgarriak Esleitzeko Ebaluazio Batzordeak**
   SGAE Fundazioaren Patronatuko edo SGAEren Zuzendaritza Batzordeko kide bat (presidentea izango da eta boto ebazlea izango du), orkestra-zuzendari ezagun bat, musikagile bat eta ospe handiko editore bat (SGAEko bazkidea eta SGAE Fundazioko Patronatuan edo Zuzendaritza Batzordean kargurik ez duena) eta musika-kritikari edo musikologo bat. Ebaluazio Batzordeko kideek ezin izango dituzte pizgarri hauek eskatu.

2. Batzorde Ebaluatzaileak bilera bakarra izango du 2026ko otsailean edo martxoan.

3. Ebaluazio Batzordeak AEOSek helarazi dizkion proposamenak aztertuko ditu.

4. Ebaluazio Batzordeak lehentasuna emango die proposamenetan obren joaldi bat baino gehiago bermatzen duten orkestra proposatzaileei.

5. Ebaluazio Batzordea subiranoa izango da eta haren erabakiak ezeztaezinak.

V PIZGARRIEN KUPOA, ZUZKIDURA ETA ORDAINKETA

1. SGAE Fundazioak AEOSekin elkarlanean, gehienez enkarguzko 6 obra sinfoniko sortzeko bidea emango du urtero.

2. Ebaluazio Batzordeak enkarguen kupoa guztiz ez betetzeko eskubidea izango du, eta ezin izango ditu AEOSen proposamenak beste batzuengatik ordezkatu. Halaber, Batzordeak ezin izango du pizgarri bakoitzarentzat ezartzen den diru-kopurua zatitu gero proposamenak gehitu edo aldatzeko.

3. Enkarguzko obra sinfonikoen sorkuntzarako pizgarrietako bakoitza **sei mila eurokoa** (6.000 €) izango da.

4. Pizgarriak administrazio-gasturik kendu gabe ordainduko dira, eta PFEZari dagokion atxikipena edo kasuan kasuko herrialdeko zerga baliokidearen atxikipena ezarri beharko zaie, indarrean den legeriaren arabera.

5. Pizgarriaren zenbatekoa zuzenean egileari ordainduko zaio bi epetan: %50a dagokion fakturaren bidez, obraren enkargua gauzatu ondoren, eta gainerako %50a hori ere dagokion fakturaren bidez, SGAE Fundazioari obra amaituta entregatzean (zuzendariaren partitura), oinarri hauetako VII. atalean ezarritako epearen barruan, artxiboan jasota gera dadin, ohiko idazketa-baliabideen bidez zein baliabide informatikoen bidez, dokumentuak biltegiratzeko PDF formatua duen dokumentua barne. Autoreak nahitaez izan beharko du SGAEko bazkide pizgarria ordaintzeko orduan. SGAEn alta egiteko eskarian atzera egiten badu, pizgarria eskuratzeko eskubidea galduko du.

   Musikagileak ez badio SGAE Fundazioari obra amaitua (zuzendariaren partitura) entregatzen oinarri hauen VII. atalean ezarritako epearen barruan, SGAE Fundazioak ez dio hautatutako egileari dagokion diru-kopuruaren bigarren % 50a ordainduko eta espresuki eta formalki eskatuko dio egileari enkargua gauzatu ondoren eman zitzaion diruaren lehenengo %50a itzultzeko.

6. SGAE Fundazioari obra amaitua dagoela ziurtatzen duen partitura entregatzeak ez du egilea salbuetsiko obra SGAEn erregistratzetik.

7. Hautatutako musikagile bakoitzakzuzenean emango dizkio orkestra proposatzaileari partitura orokorraren kopia eta partitxelak edo materialak, estreinaldirako, aurrez bien artean adostu ondoren eta arau hauetan ezartzen den epeen barruan.

VI ESLEITUTAKO ENKARGUEN JAKINARAZPENA

Ebaluazio Batzordearen azken erabakia SGAE Fundazioari jakinaraziko zaio formalki, eta horrek AEOSi jakinaraziko dio ebatzitakoa **2026ko martxoaren 17a** baino lehen. Martxoan, pizgarria emango zaiela jakinaraziko die SGAE Fundazioak hautatutako egileei.

VII ENTREGATZEKO EPEAK ETA ENKARGUZKO OBRAREN EZAUGARRIAK

1. Musikagileek **2026ko abenduaren 16ra** arteko epea izango dute SGAE Fundazioari obra amaituta entregatzeko.

2. Konposatutako obra argitaratu gabea izango da, inoiz jendaurrean edo modu pribatuan aurkeztu gabea. Gutxienez 12 minutu iraun beharko du eta ez da gehieneko iraupenik ezarriko.

3. Konposizioaren orkestra-plantilla orkestra proposatzaileak nahi duen bezala eratuko da.

VIII ENKARGUZKO OBREN ESTREINALDIA

1. Enkarguzko obra sinfonikoaren estreinaldia AEOSen aurrean proposamena gauzatu zuen orkestrak egingo du nahitaez.

2. Nolanahi ere, estreinaldia enkargua jakinarazten denetik hurrengo bi denboraldien barnean (**2026-2027 eta 2027-2028)** egin beharko du orkestra proposatzaileak, bere kontzertu, ezohiko kontzertu edo musika-zikloen denboraldiaren barruan. Egileak zein orkestra proposatzaileak behar bezala justifikatutako ustekabeko egoerek egutegia aldatuz gero, AEOS eta SGAE Fundazioari jakinarazi beharko zaio.

3. Obrak jendaurrean jotzeko orduan, orkestrak bere gain hartzen du jabetza intelektualeko eskubideak errespetatzeko ardura, zehazki editoreek orkestra-materialen alokairuagatik eta erabileragatik dituzten eskubideak, orkestrak eta egileek (edo horiek ordezkatzen dituzten argitaletxeek) elkarrekin egindako hitzarmena betez. Argitaratu gabeko obrak jendaurrean jotzeko, hautatutako obra sinfonikoaren egileak eta orkestraren ordezkariak baimena eman beharko diete AEOSi eta SGAE Fundazioari. SGAE Fundazioarekin egin beharreko hitzarmenean dator baimen hori eman beharko dutela egileak eta orkestrako ordezkariak hautatuak izanez gero.

IX EGILE ETA ORKESTREN BETEBEHARRAK

Partitura eta obra jendaurrean jarri, erreproduzitu, banatu edo ezagutzera ematen den aldi guztietan “SGAE Fundazioaren eta AEOSen enkarguz egindako obra” aipamena agertu beharko da.

Hautatutako proposamen bakoitzeko musikagileak eta orkestrak , biek batera, hitzarmen bat sinatu beharko dute SGAE Fundazioarekin. Bertan, oinarri hauetako eskakizunak eta baldintzak eta proiektu honetan parte hartzen duen alderdi bakoitzak dauzkan betebeharrak agertuko dira; esaterako, SGAE Fundazioak musikagileari emandako zenbatekoa ordaintzeko baldintzak eta orkestrak argitaratu gabeko obra jendaurrean jotzeko baldintzak. Egileak eskaera egiteko orduan SGAEn alta izapidetzen ariko balira, hitzarmena izenpetzerako, alta, osorik osatuta eduki beharko dute, eta SGAEko bazkide izan. Egileak eta proposamena egin duen orkestrak eskaera aurkezteak esan nahi du dokumentu honetan ezartzen diren oinarri eta baldintzak isilbidez onartzen direla, eta egileak eta orkestra eskatzaileak baimena ematen diotela SGAE Fundazioari pizgarriari buruzko informazioa memorietan eta gainerako argitalpenetan zabal dezan.

Egileak SGAE Fundazioa eta AEOS erantzukizunetik salbuetsiko ditu, proiektua gauzatu edo garatzeko orduan indarrean dagoen legedia hausten badu.

X HAUTATUTAKO EGILE ETA ORKESTREKIN HITZARMENAK GAUZATZEA

SGAE Fundazioak eta hautatuak izan diren egileak eta orkestra proposatzaileak hitzarmen espezifiko bat sinatuko dute; hor sartuko dira, nahitaez, dokumentu honetan datozen oinarriak eta honako informazio hau:

- Alderdi bakoitzaren eskubideak eta betebeharrak.
- Proiektuaren hasiera eta amaiera-datak.
- Emandako diru-kopurua.
- Ordaintzeko modua.
- Proiektuaren jarraipena (txostena, ebaluazioa, SGAE Fundazioaren irudi korporatiboa agertzen den materiala eta amaierako memoria).

Hitzarmena egileak eta pizgarria eskatu duen orkestraren ordezkariak gauzatuko dute, eta oinarri hauen lehenengo klausulan adierazitakoa bete beharko dute. Sinatu beharreko hitzarmenaren eredua AEOSekin eta SGAE Fundazioarekin kontsulta daiteke. Nahitaez sinatu beharko da eta ez da aldaketarik onartuko.

XI KONFIDENTZIALTASUNERAKO BEHARRA ETA DATUEN BABESA

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduak (datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoak) eta abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoak (Datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzkoak) xedatutakoa betez, MUSIKAGILEAK deialdi honetan ematen dituen datuak SGAE FUNDAZIOA eta AEOSen ardurapean dagoen fitxategi batean sartuko dira, bere eskaera hobariaren esparruan kudeatzeko; Musikagileak pizgarriaren oinarriak ezagutzen dituela adierazten du. Datuak honako kudeaketa hauek gauzatzeko erabiliko dira: Ebaluazio Batzordeari bere eskaeraren berri emateko; jakinarazpenak bidaltzeko; deialdi honetan parte-hartzeak dakarren kudeaketa administratiborako; irabazleei pizgarriaren zenbatekoa ordaintzeko banku eta aurrezki-kutxen bidez; emakidaren ebazpena edozein bitartekoren bidez (bereziki Internet bidez) argitaratzeko; SGAE FUNDAZIOAren eta/edo SGAE eta AEOSen jarduera-memoriak egiteko; eta SGAE FUNDAZIOAk eta AEOSek gauzatzen dituzten jardueren publizitatea egiteko.

Eskaera hau sinatzean, MUSIKAGILEAK berariaz onartzen du bere datu pertsonalak goian adierazitako helburuetarako erabiltzea. Datuen titularrak eskubidea du datuok ikusteko, zuzentzeko, ezabatzeko, mugatzeko eta datuen aurka egiteko baita datuak eramateko eta datuak erabaki indibidual automatizatuen objektu ez izateko eskubidea ere. Eskubideak gauzatzeko, idatz dezake helbide hauetara: SGAE Fundazioa, zerbitzu juridikoei, Bárbara de Braganza 7, 28004 Madrid edo helbide elektroniko honetara: informacion@fundacionsgae.org edo AEOS, koordinazio-zerbitzuei, Mar Caspio 4, 28033 Madrid, edo helbide elektroniko honetara: info@aeos.es. Idazki horretan, eskubidearen titularra identifikatzeko beharrezkoak diren datuak, gauzatu nahi den eskubidea eta horretarako zergatia eta egin nahi duen eskaera zehatza adierazi beharko dira, NANaren fotokopiarekin batera. SGAE Fundazioak eta AEOSek interesdunak emandako datuak egiazkotzat eta gaur egungotzat hartzen dituzte. Aldaketarik izanez gero, interesdunak berehala jakinarazi beharko die SGAE Fundazioari edo AEOSi.

XII ARAUEN ALDAKETA

Ebaluazio Batzordeak egokitzat jotzen dituen arau-aldaketak proposatu ahal izango dizkio SGAE Fundazioko Patronatuari, arlo horretako erabateko eskumena Patronatuarena baino ez bada ere.

XIII JURISDIKZIOA ETA LEGEDI APLIKAGARRIA

Dokumentu honi Espainiako legedia aplikatu behar zaio eta alderdiak Madril hiriburuko Auzitegien jurisdikzioaren menpe egongo dira; uko egin beharko diote dagokien eskumenari.

ORKESTRA SINFONIKOEN ESPAINIAKO ELKARTEKO (AEOS) KIDE DIREN ORKESTRAK

Orkestra Sinfonikoen Espainiako Elkartea (AEOS) irabazi asmorik gabeko elkartea da (Estatutuetako 1. artikulua), 1993an sortu zuen eta orkestra sinfoniko hauek osatzen dute:

ELKARTUTAKO ORKESTRAK

Andaluzia	Orquesta Ciudad de Granada Orquesta de Córdoba Orquesta Filarmónica de Málaga Real Orquesta Sinfónica de Sevilla
Asturias	Oviedo Filarmonía Orquesta Sinfónica del Principado de Asturias
Balearrak	Orquestra Simfònica de les Illes Balears
Euskadi	Bilbao Orkestra Sinfonikoa Euskadiko Orkestra
Extremadura	Orquesta de Extremadura
Galizia	Orquestra Sinfónica de Galicia Real Filharmonía de Galicia
Gaztela eta Leon	Orquesta Sinfónica de Castilla y León
Kanariak	Orquesta Filarmónica de Gran Canaria Orquesta Sinfónica de Tenerife
Katalunia	Orquestra Simfònica de Barcelona i Nacional de Catalunya Orquestra Simfònica i Cor del Gran Teatre del Liceu Orquestra Simfònica del Vallès Orquestra Simfònica Julià Carbonell de les Terres de Lleida
Madril	Orquesta y Coro de la Comunidad de Madrid Orquesta y Coro Nacionales de España Orquesta Sinfónica y Coro de RTVE Orquesta Sinfónica de Madrid
Murtzia	Orquesta Sinfónica de la Región de Murcia
Nafarroa	Orquesta Sinfónica de Navarra
Valentzia	Orquestra de València Orquestra de la Comunitat Valenciana ADDA Simfònica Alicante
Musikari gazteen orkestrak	Jove Orquestra Nacional de Catalunya Joven Orquesta Nacional de España

ORKESTRA ATXIKIAK

Orquestra Vigo 430 (Vigo, Pontevedra)
Orquesta Sinfónica Freixenet de la Escuela Superior de Música Reina Sofía (Madril)
Jove Orquestra de la Generalitat Valenciana (Valentzia)
Joven Orquesta de Canarias (Kanariar Uharteak)

Materialak eta eskakizunak emateko:

SGAE Fundazioa. Musika Saila
Bárbara de Braganza, 7
28004 Madril

Tel. (+34) 91 503 68 00

smoralg@fundacionsgae.org
informacion@fundacionsgae.org

www.fundacionsgae.org

fundación sgae fundazioa AEOS